

# **BAZTAN HARANAREN ORDENANTZA, ZERGA ETA PARAMENTU BERRIAK**

## **I.TITULUA**

### **BAZTAN HARANEKO ADMINISTRAZIO ORGANOAK**

#### **BATZAR NAGUSIA**

##### **1.Atala**

##### **Osaera**

##### **1.Artikulua**

Batzar Nagusia eratuko dute Udalak, ibarreko hamabortz herrietako alkateek (juratuek) eta juntero izeneko lau auzokok, Baztango lau kuarteletarik banak. Hauek dira kuartelak:

-Baztangoiza: Erratzu, Arizkun, Azpilkueta eta Amaiur herriek osatua.

-Elizondo: Elizondo, Lekaroz eta Elbete herriek osatua.

-Erberea: Irurita, Gartzain, Arraioz eta Oronoz herriek osatua.

-Basaburua: Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandoz herriek osatua

##### **2. Artikulua**

1.- Batzar Nagusiak ahalmena izanen du Baztango herri-lurretako ondasunak administratu, antolatu, haien aprobetxamendu-araubidea ezarri, babestu eta zaintzeko.

2.- Batzar Nagusiak herri-lur guztien kontserbazio, defentsa, hobekuntza eta berreskuratzea zainduko du eta herri-lurrean kalteak eragiten ahal dituen edozein pribatizazio-saioren nahiz ekintzaren aurka agertuko da.

##### **3. Artikulua.**

Batzar Nagusiko burua Baztan Haraneko alkatea izanen da.

#### **4. Artikulua.**

1.- Lau kuarteletako bakoitzarendako junteroen eta mendi arduradunen izendapena kuartel bakoitzeko batzarreek egingen dute. Batzarre bakoitzak boto bat izanen du. Berdinketa kasuan, kuartel bakoitzeko auzokoen artean boto gehien eskuratzen dituen pertsona aukeratuko da. Bozketa egingen da herriko alkatea (juratua) hautatzeko egingen den bilkura berean. Behin, juratua hautaturik, junteroak eta mendi arduradunak bozkatuko dira. Izendatutakoek kuarteletako auzoko izan beharko dute ezinbertzean.

Juntero edo arduradun aurkeztu nahi dutenek jakinarazpen idatzia igorri beharko diote bere herriko alkateari, eta ondoren, juratuak izangaien zerrenda idatzia udal erregistrora igorriko du. Hautaketa baino 7 egun aitzinetik, herrietako alkateek izangaien zerrenda aurkeztuko dute Udalean. Udalak, bandoen bidez, izangaien zerrenda herriei jakinaraziko die.

2.- Junteroak eta arduradunak lau urtez egonen dira karguan. Hortaz, Batzar Nagusiak egiten duen lehendabiziko bilkuran izendatuko ditu. Junteroak eta arduradunak Batzar Nagusiko kideak dira eta junteroak izateko hobesgarria izanen da aitzinetik herriko alkate (jratu) izan izana. Junteroen funtzioak, Batzar Nagusiaren bilkuretara joateaz gain, honakoak dira: laguntza eta aholkularitza ematea txostenak egiteko eta? Batzar Nagusiak eskatutako gaietan.

#### **5. Artikulua.**

Batzar Nagusiaren ohiko eta aparteko bilkuretan 8 mendi arduradunek hartuko dute parte, kuartel bakoitzetik bik. Hitza bai baina botorik ez dute izanen.

#### **6. Artikulua.**

Batzarreko idazkaria Udaleko idazkari berbera izanen da.

### **2. Atala**

#### **Funtzionamendua**

#### **7. Artikulua.**

1.- Batzar Nagusiak urtean gutxienez lau ohiko bilkura eginen ditu, hiruhileko naturalaren lehendabiziko egun baliodunean.

2.- Beharrezkoa den aldi oro Batzar Nagusia aparteko bilkuran batzartuko da, Batzarreko buruak deiturik, edo Batzar Nagusiko kideen laurdenek eskatzen badute.

#### **8. Artikulua.**

1.- Baztango Batzar Nagusian hartzen diren erabakiak bertako kideen gehiengo soilaz onetsiko dira.

2.- Batzar Nagusiak egiten dituen bilkuretan ordenantza hauetako gaiei buruz hartzen diren erabaki eta ebazpenetan, botazioetan berdinketarik suertatzen bada, bigarren bozketa eginen da eta, berdinketa mantenduz gero, buruaren botoa duen alderdiak erabakitzen duena gailenduko da.

#### **9. Artikulua.**

Aspaldiko ohiturari jarraikiz, Batzar Nagusiaren bilkuretan erabaki eta akta liburuan idazten den orok, bai komunitatearen mesedetarako xedapenak bai ordenantzetan bildutako kontzeptuak argitzeko, betetzera behartuko du ordenantzetan balego bezainbertzeko indarrarekin, betiere erabaki horiek foru xedapenak hausten ez badituzte edo haien kontra jotzen ez badute.

#### **10. Artikulua .**

1. Baztango Udaleko mendizainek agintaritzaren agenteen kontsiderazioa izanen dute beren eginkizunak betetzean.

2. Beren eginkizunetan egiten dituzten ikuskapen-aktek eta salaketek egiazkotasun presuntzioa izanen dute haietan jasotako egintzei dagokienez.

### **I.KAPITULUA**

#### **JURATUA**

##### **1.Atala**

#### **Hautatzea**

## 11. Artikulua.

1.- Baztanen beti mantendu den ohiturari jarraikiz, hamabortz herrietako bakoitzean herriko alkate bat (juratua) izanen da.

2.- Auzotasuna herrian duena, adinez nagusia dena eta herriko auzokoek herriko batzarrean, 12. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, hautatzen dutena izanen da herriko alkate (juratu). Herriko auzokoak udal erroldan inskribatuak daudenak izanen dira.

## 12. Artikulua .

Herriko alkateen (juratuen) hautatzeaz:

1.- Herriko auzoko guztien artean, abenduko hirugarren astebururako deituriko batzarrera joaten diren lagunen gehiengoak hautatuko du herriko alkatea (juratua) bi urtetarako.

2.- Batzarrea egin aitzin, herrietako alkateek (juratuek) eskura izaten ahalko dute herriko auzoko guztien zerrenda zertifikatua aste bat aitzinetik jendaurrean paratzeko. Zerrenda urteko hondarreko zuzenketaren arabera izanen da eta hautatze egunean 18 urte beterik dituztenak ageriko dira.

Jendaurrean paratzea ohar baten bidez egingen da iragarki-oholean, non adieraziko baita interesdunek ikusten ahalko dutela erroldan sarturik direla, Juratuari eskatuz edo Udal bulegoetan eskatuz.

3.- Herri bakoitzean herriko alkateak( ) bileraren hasiera finkatu eta aste bat aitzin jakitera emanen du. Hautaturiko egunean, herri bakoitzeko auzokoak batzarretegian edo hautatutako bertze leku batean batzartuko dira. Batzarreko buruak herriko alkatea (juratua) bera eta bi kargudun bederen izanen dira. Batzarreko idazkaria idazkari lanetan arituko da.??????????

4.- Hautagaitzak Batzarrea hasi aitzin aurkeztu beharko dira eta herriko alkateari (juratuari) emanen zaizkio idatziz, hautagaiaren onespenekin sinatuarekin, edo ahoz. Herriko alkateak hautagaien izenak jakinaraziko ditu. Hautagai bat baino gehiago baldin bada, bozketa hurrengo igandera gibelatuko da eta herrian hautagaitza bat baino gehiago dela jakinaraziko da.

5.- Hautagai bakarra aurkeztuz gero, batzarrearen gehiengoak berretsi beharko du, eta horrela eskatzen bada, bozketa egingen da.

6.- Herriko alkateak (juratuak) eta aurkezten den hautagaitza bakoitzeko ordezkari batek eratuko dute hauteskunde mahaia. Herriko alkatea (juratua) hautagai baldin bada, kargudun batek ordeztuko du. Udalbatzako kideak ez dira herriko alkaterako (juraturako) hautagai izaten ahal.

Une oro mahaian behinik behin bi mahaikidek egon beharko dute.

7.- Bozketa zuzena eta sekretua izanen da eta kartazal batean sarturiko boto txartelaz egingen da. Udalak hornituko ditu kartazal eta boto paperak. Mahaiak finkatuko du bozketa noiz hasi. Hautesle bakoitzak bakarrik hautagai bakar bati ematen ahalko dio botoa.

Boto txartelak herriko alkateari (juratuari) emanen zaizkio. Horrek botaziorako denbora xedatuko du, hiru ordu gutxienez izanen direlarik bozketa egiteko eta txartelak hautestontzi garden batean sartuko ditu, bertaratutakoen begi bistan.

8.- Bozketa akiturik, mahaiak zenbaketa egiaztatuko du. Mahaiburuak boto txartelak banan-banan atera eta ozenki irakurriko ditu. Mahaikideek eman diren botoak idatziko dituzte.

9.- Boto kopururik handiena lortu duen hautagaia herriko alkate (juratu) izendatuko dute eta, bozketan berdinketarik baldin bada, bigarren deialdi bat egingen da. Berdinketak badirau, hautagaitzen artean zozketa egingen da.

10.- Kargua uzten duen herriko alkateak herriko alkate (juratu) berriaren izendapen erabakia Batzar Nagusiari igorriko dio ofizialki, horrek egiten duen lehen bilkuran, batzarrearen akta erantsi beharko duelarik.

11.- Hautagairik ez bada, hautatzea urtarileko lehen hamabortzaldian errepikatuko da aitzinetik ezarritako moduan.

Bigarren deieran hautagairik ez bada aurkeztu, Batzar Nagusiko buruak Batzarre bat egiteko deialdia egingen du hilabeteko epean egoeraren berri emateko.

Herriko alkaterik (juraturik) gabeko egoerak baldin badirau, Baztango Udalak ez dio herri horri ordainduko dagokion dirua, herriko alkate (juratu) berria hautatzen ez den bitartean, herriko alkaterik (juraturik) ez izateak eragotzi egiten baitu diru hori ongi kudeatzea.

12.- Herriko alkateren (juraturen) batek kargua uzten badu hautatua izan den bi urteko aldia akitu baino lehen, batzarrerako deia egingen du erabakia jakinarazteko eta herriko alkate berri bat hautatzeko prozesua irekitzeko.

## 2.ATALA

### Herrietako alkateen eskumenak eta eskudantziak

#### 13. Artikulua.

Honatz herriko alkatearen (juruaren) eskumenak :

- 1.- Batzarreetako burua izanen da. Herriko alkatea hautetsi den herriko ordezkaria izanen da.
- 2.- Hautetsi den herriaren solaskide izanen da. Herriko auzokoen eskaerak, kontsultak eta bestelako gaiak Batzar Nagusira eta Udalera eramanen ditu. Eta alderantziz. Lan hori egiteko, Udalak horretarako beharrezkoak diren baliabideak emanen dizkio.
- 3.-Herriko auzokoei arreta egitea denbora eta modu arrazoigarrian, Batzarreari arreta egiteko prozeduraren berri emanik.
- 4.-Batzarreak hartutako erabakiak gauzatzea.
- 5.- Herriko batzarrerako deia egitea.
- 6.- Herriko auzolanetarako deia egitea.
- 7.- Eguneratua eduki beharko du horretarako prestatutako herriko iragarki oholak, batzarreetako azken akteak eta egokiak iruditzen zaizkion bertzelako idatzi edo komunikazioei dagokienez.
- 8.- Dagokion herrian herri-galdeketa egitea. Galdeketa, herriko auzotasuna gutxienez 12 hilabetekoa duten 18 urtetik goitikoek parte hartzen ahalko dute.
- 9.- Kanposantuko egoera eta zainketa ezagutu beharko ditu eta horren segimendua egin aldian-aldian, eta egoerak hala eskatzen duelarik, horren berri Udalari eta Batzar Nagusiarri eman beharko die.
- 10.- Herriko alkateak (juruak) bere herriko proposamenak helaraziko ditu udal aurrekontuak egiteko.
- 11.-Herriko alkateak (juruak) dagokion herriaren dirua kudeatu, eta kontuak eman beharko ditu batzarraren aitzinean.

#### 14. Artikulua.

Herriko alkatea (juratua) herriko Ur Batzordeko burua izanen da, uraren kudeaketaz haran mailan onartzen den antolakuntza alde batera utzita, eta ezarritako hitzarmen edo akordioak errespetatuz. Ildo horretan, uren, hornidura eta saneamendu sarearen egoera behatu beharko du, bai eta uraren aferarekin loturiko bertze gaiak ere.

#### **15. Artikulua.**

Herriko alkatea (juratua) herriko besten arduradun izanen da. Besta batzordea dagoen herrietan, hura izanen da bestak antolatzeko arduradun. Besta batzorderik ez den herrietan, herriko alkatea (juratua) izanen da horren arduradun eta horretarako prest diren auzokoen laguntza izanen du.

#### **16. Artikulua.**

Baztango Udaleko alkate-udalburuak aldez aitzinetik jakinarazirik, herriko alkateak (jratuak) herriko Batzarrearen proposamenak helaraziko ditu; haiei eragiten dieten Udal Planaren aldaketei dagozkien proposamenak, hain zuzen ere.

Jakinarazpenaren biharamunetik aitzina, Batzarreak 20 egun naturaleko epean ez badu txostenik ematen Udal Planaren aldaketaz, ulertuko da ez dela haren kontrako oposiziorik.

#### **17. Artikulua.**

Aspaldiko ohiturari jarraikiz, herrietako alkateek (jratuek) herriko auzokoak kargudun izendatzen ahalko dituzte bere eginkizunetan laguntza emateko (bi gutxienez herri bakoitzean).

#### **18. Artikulua.**

Herriko alkateak (jratuak) diru kopuru bat hartuko du eginiko lanarengatik.

#### **19. Artikulua .**

Haraneko herri bat herriko alkaterik (juraturik) gabe geldituz gero, Batzar Nagusiak ezarriko ditu bidezko diren neurriak, 12.12 artikuluan ezarritakoa izan ezik, herriko alkateak (jratuak) dimisioa ematen duen kasurako.

## BATZARREAK

### 20. Artikulua .

Batzarrea auzokoen bilera da, haraneko 15 herrietako bakoitzean egiten dena. Herri bakoitzeko alkateak (juruak) eta auzokoek eratzen dute. Bertan, herri mailan zein Baztan mailan interes publikoa duten gaiak aztertuko dira.

Batzarreak bere ondasunak eduki ahalko ditu, bere interesak ordenantza honetan Batzarreari ematen zaizkion eskumenen esparruan kudeatu eta administratzeko.

### 21. Artikulua .

Batzarrean auzotasuna duten 18 urtetik goitikoek hartuko dute parte. Alta, herrian etxebizitza bat izan eta herriko alkatearen (juratuaren) aitzinean horren jabe direla egiaztatzen duten pertsonak ere parte hartzen ahalko dute. Halaber, eztabaidatuko den gairen batean interesa egiaztatzen duten auzokoek ere parte hartzen ahalko dute, haien presentzia alkateak (juratuak) proposatu eta batzarrearen gehiengoak berretsi beharko duelarik, eta parte hartzeko baimena eskatu duten gaia eztabaidatzen den bitartean bakarrik izanen ahalko direlarik batzarrean. Batzarrerako asistentzia pertsonala izanen da, eta inor ezin izanen da hirugarren batek ordezkaturia izan.

### 22. Artikulua.

Herriko alkateak (juratuak) egingen du Batzarrerako deia. Alabaina, honako hauek izanen dute eskumena herriko alkateari (juratuari) batzarrerako deia egin dezan eskatzeko:

- Batzarre batek bertze batzarre baterako deia egiten ahal du.

-Batzar Nagusiak

- Batzarrean parte hartzeko eskubidea duten herriko auzokoen %25ek ere.

### **23. Artikulua.**

- 1.- Batzarrea, herriko alkateak (juruak) bertze tokirik aipatzen ez badu, ohiko tokian eginen da.
- 2.- Batzarrerako deia gutxienez ere bi egun natural aitzin eginen da.
- 3.- Deialdia eta gai zerrenda jendearen aitzinean paratuko dira herri bakoitzeko iragarki oholean eta herri bakoitzeko ohiko tokietan.

### **24. Artikulua.**

- 1.- Herriko alkatea (juruak) batzarreko mahaiko burua izanen da, Kargudunek lagundurik.
- 2.- Herriko alkateak (juruak) edo hark izendatutako pertsonak batzarrearen akta egin eta erabakiak ziurtatuko ditu. Aktaren kopia bat Udalera igorriko da artxibatzeke.
- 3.- Aktak zein dokumentazio publikoa batzarretegian (batzarrea egiten den tokia) gordeko dira. Auzokoek akta ikusteko eskubidea dute, eta herriko alkateak (juruak) eskubide hori bermatu beharko du.

### **25. Artikulua.**

Batzarrean eztabaidatzen direnak herria edo/eta harana ukitzen duten gaiak dira; erabakiak, aktan bildu ondoren, Batzar Nagusira eramaten ahalko dira.

## **II.KAPITULUA**

### **AUZOLANAK**

### **26. Artikulua.**

- 1.- Auzolana da herrietako egoiliarrek herriari berari eta Baztani egiten dieten ekarpena, jeneralean norberaren prestazioaren bitartez.
- 2.- Urteko norberaren prestazioa ez da hamar egunetik goitiko izanen, ezta ondoz ondoko hiru egunetik goitiko ere. Bertze pertsona egoki batek bere borondatez ordeztzen ahalko du edo lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza adina diru ordainduta.

### **27. Artikulua.**

- 1.- Herriko alkateak (juruak) egingen du auzolanerako deia.
2. Deialdia iragarki oholetan emanen da aditzera.

### **28. Artikulua.**

Herriko alkateak (juruak), kargudunen laguntzarekin, auzolana planifikatu eta antolatuko du. Halaber, gauzatu beharreko lanaren balorazioa egingen du, lana egiteko beharrezkoak diren pertsonen kopuru gutxienekoa eta gehienekoak ezartzeko.

### **29. Artikulua.**

Auzolanetan parte hartzera beharturik daude herri bakoitzeko egoiliarrak, indarrean den foru araudian aurreikusitakoak izan ezik.

### **30. Artikulua.**

Derrigorrezkoa den prestazioan ez agertzeak diru kopuru bat ordaindu beharra ekarriko du berekin, aitzinetik justifikatzen ez bada eta ezinbertzeko kasuetan salbu. Diru kopurua herriko batzarreak berak ezarriko du.

### **31. Artikulua.**

Baztango Udalak prestazioa egitera beharturik direnei suertatzen ahal zaizkien istripuen arriskua estaliko du aseguru bat kontratatuz.

## **III.KAPITULUA**

### **KONTRIBUZIOAK**

### **31. Artikulua.**

Udalak bidezko jotzen duen diru kopurua paratuko du haraneko hamabortz herrien artean banatzeko, kopuru horren erdia hamabortz herrien artean zuzen hainbanaturik eta bertzea hondarreko udal eroldaren arabera.

### **33. Artikulua.**

1.- Tokian tokiko beharrei erantzuteko, haraneko herriek auzokoei zerga bereziak ezartzen ahalko dizkiete.

2.- Herrietako edozeinek zerga bereziak ezarri nahi baditu, egin aitzin batzarrean erabaki beharko da eta Batzar Nagusiari jakinarazi.

#### **34. Artikulua.**

Erdietsitako baliabideez egiten den kudeaketaren inguruko kontuak emanen zaizkie herriko auzokoei, Haraneko Udalari eta Batzar Nagusiari.

## **II. TITULUA**

### **HERRI-LURRAK**

#### **I.KAPITULUA**

### **HERRI-LURRETAKO ONDASUNAK**

#### **35. Artikulua.**

1.- Haraneko herri-lurretako ondasunak dira Batzar Nagusiaren titulartasuna dutenak. Haiek erabili, defendatu, antolatu eta hobetzeko ahalmenen gauzatzea Batzar Nagusiari dagokio; haien erabiltzea eta aprobetxamendua ordenantza hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten haraneko auzokoei dagokie. Herri-lurrak bertzeretzinak, ezinbertzekoak eta bahituezinak dira eta ez daude inolako zergari lotuak.

2.- Auzokoen aprobetxamendurako ez diren herri-aprobetxamenduak (oihan loteak, harrobiak, eihizia, etab.) auzokoen mesedetarako izanen dira udal aurrekontuen bitartez, eta haien aprobetxamendua arautzen duten foru legeek eta Batzar Nagusiak onetsitako baldintzen agiriek aginduko dituzte.

3.- Aprobetxamenduen emakidadunek urtero ordainduko dute herri-lurren aprobetxamendurako kanon gisa ordenantzek ezarritako kopurua. Irazelaien aprobetxamendua egin beharra eta horrek ingurumenari dakarkion onura kontuan harturik, ez da inolako kanonik kobratuko aprobetxamendu horiengatik.

#### **35. Artikulua.**

Auzo-aprobetxamenduak dira Baztango auzokoek zuzenean egiten dituztenak Haraneko Batzar Nagusiak emandako kontzesioaren bidez. Kontzesioa hartu duten auzokoek inolaz ere ez dituzte saltzen, eskualdatzen, alokatzen edo lagatzen ahal, ordenantza honetan bildutako kasuetan izan ezik.

Azaroaren 1etik martxoaren 15era, baimena ematen da luberriaren ustiapenez kanpoko azienda alhatzeko, aziendaren titularrak 38. artikulua betetzen badu eta luberriaren aprobetxamenduaren titularraren baimena badu.

### **37. Artikulua.**

Eskuarki, emakida eta aprobetxamendu guztientzat, erregistro bat ezarriko da. Erregistro horretaz haraneko idazkaria arduratuko da. Idazkariak kontzesioaren kokapenerako ezinbertzeko datu guztiak eduki beharko ditu, bai eta katastro-identifikazioa ere.

### **38. Artikulua.**

Onuradunak:

- 1.- Oro har, edozein auzo-aprobetxamendutako onuradun izateko, baldintza hauek bete beharko dira:
  - a.- Baztango auzokoa izatea, erroldan gutxienez bi urtez izena emana izatea.
  - b.- Baztango udalerriri egin beharreko zerga ordainketa egunean edukitzea.
- 2.- Lehen instalazioko abeltzainari erroldan gutxienez urtebetez erroldaturik izatea eskatuko zaio, betiere lehen instalazioaren proiektuaren egiaztapena –Nafarroako Gobernuak onetsia– Batzar Nagusiari aurkezten badiu.
- 3.- Ez dute emakidun izaterik natur baliabideen nahiz ingurumenaren aurkako delituengatik epai irmoren bidez kondenatuak izan direnek. Eskaera egitean, zinpeko adierazpen bat sinatuko da epai irmorik jaso ez dela adierazteko.

### **39. Artikulua.**

Herri-lurren aprobetxamendua ematen zaion orok bi urteko epean egin beharko ditu lanak; aprobetxamendua, bertzenaz, Batzar Nagusira itzuliko da. Mendizainek lanak egin ote diren

begiratu dute. Herri-lurren aprobetxamendua egiteak eragiten dituen gastu guztiak kontzesiodunaren bizkar joanen dira. Dena dela, eskaera Baztango herri baten izenean egin bada, sortzen diren administrazio gastuak Udalak ordainduko ditu.

#### **40. Artikulua.**

Batzar Nagusiak, salbuespenez, eta Batzar Nagusiak berak aitzinetik interes orokorreko adierazpena eginik, egoki ikusten badu, lurrak eta aprobetxamenduak edozein momentutan erabiltzeko ahalmena izanen du, haien emakidak indargabetuz. Lau hilabete lehenago gutxienez jakinaraziko dio emakidadunari, eta horrez gain, baja, tasazioa eta kalte-ordainak egiteari helduko zaio, ordenantza hauen 1. eranskinean ezarritakoarekin bat; kasuotarako zehazki, aipatu eranskinean ezarritako zenbatekoaren bikoitza izanen da.

#### **41. Artikulua.**

1.- Batzar Nagusia izanen da aprobetxamenduaren emakidaren iraungipen-espeditentea ebazteko organo eskuduna, eta ofizioz hasiko da beti, dela Batzar Nagusiaren ekimenez dela pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, salaketa eginik. Aprobetxamenduetan, 2. eranskinean ezarritako arauari jarraituko zaie.

2.- Iraungipen-espeditentea tramitatu bitartean, hamabortz eguneko epea emanen da egoki jotzen diren nahi adina alegazio eta agiri aurkezteko eta, kasua bada, probak proposatzeko eta probetarako bitartekoak zehazteko, Administrazio Prozedura Erkidearen araudian ezarritakoarekin bat.

## **II. KAPITULUA**

### **LARREAK**

#### **42. Artikulua.**

Auzo-aprobetxamenduaren ondorioetarako, Baztango larreak honela sailkatzen dira: erabilera komuneko mendi larreak, banakako erabilerako luberriak, larraskak eta, gainerako herri-lurretako abeltzaintza.

#### **43. Artikulua.**

1.- Auzokoen azientak Haraneko herri-lur irekietan alhatuko dira, auzokoek honako baldintza hauek betetzen badituzte: 38. artikulua ezarritako baldintzak betetzea, azienta haien izenean

izatea, azienda haranean erregistraturik izatea, abere osasunari buruz indarrean diren betebeharrak betetzea eta Batzar Nagusiak baimendurik izatea.

2.- Auzokoak mota eta espezie orotako azienda identifikatu beharko du, une oro norena den jakiteko moduan.

3.- Bertze eskualde edo haranetako aziendak galarazia izanen du Baztango herri-lurretan alhatzea, salbu eta elkarrekiko larre hitzarmenak dituztenetan.

## 1. ATALA

### MENDIKO LARREAK

#### 44. Artikulua.

1.- Gaur egun, mendiko larreak dira Belate, Erdiz eta Lizartzuko eskindegietan daudenak.

Aprobetxamendua amankomunean eginen dute haraneko abeltzainenak diren aziendek, honako baldintza hauek betetzen badituzte: 38. artikulua ezarritako baldintzak betetzea, abeltzain-txartela izatea eta azienda haranean erregistraturik izatea. Aziendak bete beharko ditu arlo hori arautu eta indarra duen legeriak eskaturiko abere osasuneko baldintzak.

2.- Mendiko abeltzaintza Haraneko Batzar Nagusiaren erabakiz arautuko da.

## 2. ATALA

### Luberriak

#### 45. Artikulua.

Luberriak dira herrietako herri-lurretan egindako larre labakitzeak, Batzar Nagusiak baimendurik edo zuzenean esleiturik.

#### 46. Artikulua.

1.- Aprobetxamendua Batzar Nagusiak baimendutako esleipendunek eginen dute, Ordenantza honekin bat. Aziendak arlo hori arautu eta indarra duen legeriak eskaturiko abere osasuneko baldintzak beteko ditu.

2.- Batzar Nagusiak begiratuko du baldintzak betetzen direla, eta horretarako, protokolo bat ezarriko du kasuan kasuko azienda-errola Nafarroako Gobernuari eskatzeko.

3.- Ez zaie luberririk baimenduko gutxienez 3 A.L.U. ez dituzten titularrei, eta 5 A.L.U. ez dituztenei, ponien kasuan. Gainera, adjudikatutako luberri azalera ezin izanen da izan 1 A.L.U./Ha-ko azienda kargaren proportzioa baino txikiagoa.

4.- Onuradun batek azienda-eroldan baja hartzen badu, 3 hileko epea izanen du luberriaren baja emateko edota titularitate aldaketa eskatzeko. Hori ez badu egiten, Batzar Nagusiak zuzenean emanen die baja aprobetxamenduei.

#### **47. Artikulua.**

Hona hemen luberri baten aprobetxamendua iraungitzeko arrazoiak:

1.- 38. artikulua ezarritako baldintzak ez betetzea.

2.- Emakidadunak abeltzain-txarteldun abeltzainaren izaera galtzea.

3.- Osasun beharkizunak ez betetzea.

4.- Mendian erreketak baimenik gabe egitea.

5.- Luberriko ekoizpena larriki andeatzea.

6.- Emandako luberrien berralokatzea edo lagapena, 36. artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.

7.- Ez izatea gutxienez 3 A.L.U. edo 6. A.L.U. ponien kasuan. Gainera, adjudikatutako luberri azalera ezin izanen da izan 1 A.L.U./Ha-ko azienda kargaren proportzioa baino txikiagoa.

#### **48. Artikulua.**

1.- Eskaera idatziz egingen da, aprobetxamendua gauzatu nahi den parajea, katastro-erreferentzia (poligonoa eta lurzatia) eta luberri nahi den gizalur kopurua (374 metro karratukoak) zehaztuz.

2.- Batzar Nagusiko zinegotzigo koordinatzaileak eta mendizainek eskaeraren gaineko txostena eginda eta Batzar Nagusiak onetsi ondoren, teknikari bati eskatuko zaio mugarritze akta eta memoria egiteko, lokalizazioa emanez (TRS 89, 30 UTM koordinatuak) eta bertako plano bat eginez; bertan zedarritzearen mugarri guztiak agertuko ditu. Dokumentazio hirukoitza egingen da eta ale bat Udalari emanen zaio, bigarrena emakidadunari eta hirugarrena Nafarroako Gobernuari. Halaber, euskarri digitalean aurkeztuko da, gero herri-lurren geruza digitalean erregistratzeko.

- 3.- Arestian azaldutako lanek sortzen dituzten gastu guztiak kontzesiodunaren bizkar izanen dira.
- 4.- Kontzesiodunek herri-lurrak bere lursailen segidan luberritzen ahalko dituzte, betiere Batzar Nagusiak horretarako baimena ematen badu.
- 5.- Luberritutako herri-lurretako itxiturak, paretazkoak, burdin harizkoak edo sare metalikozkoak izan, indarrean den hirigintza-araudiari lotuko zaizkio.
- 6.- Luberritzeko baimena duten herri-lurrak, kontzesioa ematen denetik bi urtetan landuko dira. Bertzenaz, kontzesioa deuseztatuko da eta kontzesiodunak Udalari luberritzeko eskubidearengatik ordaindutako dirua galduko du. Kontzesiodunak eginiko hein bateko lanak (itxiturak, etab.) Baztanen faboretan geldituko dira.
- 7.-Kontzesiodunak aprobetxamendua luberritik landaketara aldatzea eskatzen duenean, edo luberriaz bertzelako aprobetxamendua egiteko, aldaketa hori ez da onartuko, baldin eta luberriek modu independentean funtzionatzen ahal badute. Jabetzapeko lurrei erantsitakoei dagokienez, aldaketa horiek ere ez dira onartuko, 4.000m<sup>2</sup>-tik goitikoak badira.
- 8.- Batzar Nagusiak hamar urtean behin egingen du luberriak aprobetxatzeko kontzesioen berrikuspena, inbertsio publikoko zein pribatukoak izan, ordenantza hauek onesten diren urtetik hasita. Nolanahi ere, Batzar Nagusiak edozein unetan berrikusten ahalko ditu luberriak, komenigarri ikusten badu. Emakidak zuzenean berrituko dira 10 urteko epeetarako baldintzak betetzen dituzten titularrendako.

#### **49. Artikulua.**

- 1.- 47. Artikuluaren 3., 5. 6. eta 7. idatz-zatietan bildutako iraingipen-kasuetan, aprobetxamenduaren emakida iraingitzeko espedientea abiarazi aitzin, gehienez sei hileko epea emanen da iraingipenaren zioa zuzentzeko.
- 2.-Zioak zuzendu badira, prozedura bukatutzat joko da. Egoerak bere horretan badirau, aprobetxamenduaren emakida iraingitzeko espedientea abiaraziko da.
- 3.- Ez da zioa zuzentzeko aukerarik izanen eta zuzenean abiaraziko da aprobetxamenduaren emakida iraingitzeko espedientea, artikulua honen lehen paragrafoaren kasuren batean erortzen bada hurrengo bi urteetan, sei hileko epea bukatzen denetik aitzina.

#### **50. Artikulua.**

Aprobetxamenduaren kontzesioduna hiltzen bada, aprobetxamendua ustiatzen segitu nahi duten legezko ondorengoek 12 hileko epea izanen dute titularitate aldaketa eskatzeko. Nolanahi ere, kasu horietan 51. artikuluekin bat jotzeko da. Bertzenaz, iraungipen-espeditentea abiaraziko da, herri-lurrak zuzenean Batzar Nagusira itzuliko dira, eta 53. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

#### **51. Artikulua.**

Titularitate aldaketak.

Herri-lurrak aprobetxatzen dituen onuradunaren titularitate-aldaketa eskatzen bada, honela jotzeko da:

1.-Eskatzaileak Ordenantzaren 38. artikuluan ezarritako beharkizunak bete beharko ditu.

2.-Titularitate-aldaketa soilik onartuko da, eskatzailea:

a) ATP denean.

b) Eskatzaileak ustiapen berarekin segitzen duenean.

Bertzenaz, ez da aldaketa onartuko, eta 53. artikulua ezarritakoari jarraituko zaio.

3.- Titularitate-aldaketetan, onuradunak hektarea gehiago baldin baditu 52.2 artikuluan ezarritakoak baino, 52. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

#### **52. Artikulua.**

Dagoen luberri baten aprobetxamendua.

Dagoen luberri bat aprobetxamenduaren eskura gelditzen denean, prozedura honi jarraituko zaio:

1.- Batzar Nagusiko buruaren ebazpenaren bitartez, hilabeteko epea irekiko da, iragarkia udal webgunean eta Udaletxeko eta Baztango herrietako iragarki-oholetan paratuta, interesdunek beren eskaerak udal erregistroan aurkez ditzaten.

2.- Ez dira onartuko 40 ha/UTA gainditzen dituzten onuradunen eskaerak. Onuradunek 2 UTA edo gehiago badituzte, gehienez ere 60 hektarea ematen ahalko dira.

3.-Eskaera bat baino gehiago aurkezten badira, lehentasunak ezarriko dira, eskatzaileak oinarri harturik:

1. Lehentasunezko ustiategiak.

2. ATP.

3. Bertze batzuk

Kategoria bereko eskatzaile bat baino gehiago baldin bada, ordenantza honetako 3. Eranskinean bildutako puntuazio-sistemari jarraituko zaio; bertzenaz, lehentasunezko eskatzaileari adjudikatuko zaio beti, aitzineko paragrafoan ezarritakoaren arabera.

### **53. Artikulua.**

Konpentsazioa, dagoen luberri bat aprobetxatzeagatik.

1.-Konpentsaziorako balorazio-taula bat ezarri da, ordenantza honetan erantsia (2. eranskina). Baja emaniko luberriaren tasazio ekonomikoa egingen da. Luberriaren adjudikaziodun berriak 15 eguneko epea izanen du balorazio hura aitzineko onduradunari ordaintzeko, eta dagokion ordainketa-agiria eta luberriaren planoak aurkezteko. Bi dokumentu horiek aurkeztu beharko dira nahitaez luberriaren alta onartzeko.

Ordenantzak urratzearen ondorioz, onuradunari luberria kentzen bazaio, ez du eskubiderik izanen inolako diru konpentsaziorik jasotzeko.

## **2.TALA**

### **larraskak**

### **54. Artikulua.**

Larraskak.

1.- Larrasken eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte: Ordenantza hauetako 38. artikuluan ezarritakoak, abeltzain-txartela edukitzea, azienta Baztanen erregistratua izatea eta Haranean erroldatua egotea. Aziendak abere osasunari buruz indarrean diren betebeharrak bete beharko ditu uneoro.

2.- Azienta mota ororendako eskatzen ahalko dira larraskak.

3.-Kontuan harturik ahuntz-azientak kalte handiak eragiten dituela, azienta hori haraneko herri-lurretan alhatzea debekatzen da, betiere Urritzaten eta Aritzakuneko beheitiko alderdian,

zuhaitzik gabeko eremu eta txaradietan izan ezik. Haraneko gainerako lurretan, Batzar Nagusiak baimendutako lekuetan bakarrik alhatzen ahalko dira.

4.- Eskatzailea lehentasunezko ustiategia edo ATP baldin bada, Batzar Nagusiak herri-lurrak larraskan adjudikatzen ahalko dizkio, aprobetxatu ditzan: gehienez ere 2 hektarea azienda mota ororendako. Ahuntz- eta txerri-aziendarendako, gehienez ere 52.2 artikuluan ezarritakoak adjudikatzen ahalko dira.

5.-Eskatzailea ez bada, ez lehentasunezko ustiategia, ez ATP, Batzar Nagusiak 3 gizalur larraska adjudikatzen ahalko du gehienez edozein abere motarendako, eta kasuan kasuko araudi indarduna beteta.

6.- Eskatutako larraskan zuhaitz partikularrak badaude, eskatzaileak akordioa egin beharko du jabearekin. Zer zuhaitz mota diren, Batzar Nagusiak agindua ematen ahalko du larrakak nondik itxi, eta nondik, ez.

7.- Larraskek behar bezala hertsirik egon beharko dute.

8.- Baimendunek bakarrik aprobetxatzen ahalko dituzte larraskak eta baimendutako aziendarendako baizik ez.

### **III. KAPITULUA**

#### **ERLEZAINZA**

##### **55. Artikulua.**

1.- 38. artikulua baldintzak betetzen dituzten Baztango auzokoek herri-lurretan erle-kafoinak paratu nahi badituzte, idatziz eskatu beharko diote baimena Batzar Nagusiari, ordenantza honetako 4. eranskinean bildutakoaren arabera.

2.- Erle-kafoinak paratzeko baimena uneoro lotuko zaio erlategien gaineko antolamendu sanitarioaren eta zooteknikaren arloko neurrien aplikazioa arautzen duen oinarrizko araudiari, eta era berean, erle-kafoinak kokatu, finkatu eta mugitzeko baldintzei eta azpiegitura zooteknikoari, sanitarioari eta ekipamenduei, erlezaintza ongi garatze aldera, salbuespen hauekin, betiere:

- G.R. eta herri bideetan, Donejakue Bidean eta abar, gutxienez 25 metroko distantzia errespetatuko da.

-Gutxienez 5 metroko distantzia utziko da mendi bideekin.

-Gutxienez 200 metroko distantzia utziko da etxebizitzarik hurbilenekin.

-Gutxienez 25 metroko distantzia mantenduko da aitzineko herri-lur aprobetxamenduekin (halakorik badago) eta hirugarrenen jabetzekin.

3.-Erle-ustiategien titularrek erlategitik hurbil eta ongi ikusten den toki batean ohartarazi beharko dute badirela erleak. Seinaleek gutxienez ele bitan izan beharko dute (euskaraz eta gaztelaniaz).

## IV. KAPITULUA

### OIHAN LANDATZEAK HERRI-LURRETAN

#### **56. Artikulua.**

Zuhaitz landatze berriak Baztango herri-lurretan. 38. artikulua ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta eremu jarraiko oihan landatzeak egin nahi dituzten haraneko auzokoek idatziz eskatu beharko diote baimena Batzar Nagusiari.

Auzoko interesdunak eskaera idatzia aurkeztuko dio Batzar Nagusiari. Mendi arduradunek eta mendizainek eskaeraren gaineko txostena eginda eta aztertuta, Batzar Nagusia izanen da eskuduna emakida adjudikatzeko.

Landatzeen eskatzaile baimendunek hilabeteko epea izanen dute baimena jakinarazten zaienetik, memoria tekniko egin eta aurkezteko, landaketa non den adierazteko (ETRS-89 HUSO 30, UTM koordenatuak), eta azalera, espeziea eta plantazio markoa zehazteko.

#### **57. Artikulua.**

Landatzeak egiteko onuradun baimenduek eskindegiak kendu beharko dituzte, lehen 15 urteak iraganik. Behin 15 urteak iraganik, onuradunek lan hori egiten ez badute, mendizainek egoerari buruzko txostena egin, eta Batzar Nagusiak urtebeteko epea emanen du bilketa lanak egiteko. Ezarritako epean lanak egiten ez badira, eta behin hori egiaztaturik mendizainen txostenaren

bidez, Batzar Nagusiak ofizios baja emanen dio aprobetxamenduari eta eskindegia bilduko du. Lan horiek eragiten dituzten gastuak onuradun izanikoaren bizkar joanen dira.

Onuradunek bertze 15 urtez eskatzen ahalko dute luzapena. Luzapena eskaturik, mendizainek eskindegia irauteari buruzko txostena egingen dute, eta Batzar Nagusiak eskindegia baimendu edo ukatu beharko du, txostenaren arabera. Landaketa-gastu guztiak onuradunak ordainduko ditu.

#### **58. Artikulua.**

Fruituak ekoizteko oihan landatzei (monolaborantza) kanon handiagoa aplikatuko zaie, gainerako landatzeen bikoitza, eta kasu horietan, baimena emanen zaie inguruz inguruko itxitura mantentzeko huraxe aprobetxatze aldera.

#### **59. Artikulua.**

Emakida berrikustea.

1.-Batzar Nagusiak emakida eman eta 10 urtera berrikusiko du.

2.-Eguneratzen joanen da auzokoen herri-lurretan dituzten zuhaitzen estatistika, eta horretarako, auzokoen datuak eman beharko dituzte eskatzen zaizkienean.

#### **60. Artikulua.**

Emakida iraungitzeko zioak dira:

1.- Oihanberritzea larriki andeatzea.

2.- Ondoz ondoko bi urtez aprobetxamendu-kanona ez ordaintzea.

3.-Ez biltzea eskindegia, 58. artikuluan ezarritakoarekin bat.

4.-Baztango auzotasuna galtzea. Horrelakoetan, urtebeteko epea emanen da sail landatua saltzeko, titularitatea aldatzeko edo baja emateko. Epe hori iraganik, Batzar Nagusiak baja emanen die ofizios pertsona horren izenean herri-lurretan dauden zuhaitz edo sail guztiei, eta ez du kalte-ordainerako eskubiderik izanen.

5.-Titularra hiltzen bada, urtebeteko epea emanen zaie ondorengoei sail landatua saltzeko, titularitatea aldatzeko edo baja emateko. Behin epea iraganik, Batzar Nagusiak baja emanen die ofizioz pertsona horren izenean herri-lurretan dauden zuhaitz edo sail guztiei.

## **61. Artikulua.**

Batzar Nagusiak eta Haraneko Udalak oihan landatzeak sustatzea.

1.- Egoki diren herri-lurretan haraneko erakundeek bidezko jotzen duten bezainbertze oihan landatze egiten ahalko dute, betiere lehenago aprobetxatzen zuen auzokoari aprobetxamendua iraungitzeko espedientea hasi ondoren. Horri aprobetxamendurako bertze lur bat eskainiko zaio.

2.- Batzar Nagusiak eta Baztan Haraneko Udalak espezieen aniztasuna sustatuko dute, oihanberritu beharreko eremuaren gaineko ikerketan oinarrituz. Bertako haritzak lehentasuna du landaketak planifikatzeko orduan, betiere herri-lurrak espezie horretarako egokiak badira. Ahal denean, dauden hariztiak berez birsortzeko beharrezkoak diren oihan lanak eginen dira.

3.- Batzar Nagusiak zuhaitziaz osatutako eta herri-lurrentzat interesgarriak diren kontzesio zaharren berreskurapena sustatuko du.

4.- Batzar Nagusiak lan hauetarako finantza baliabideak eta diru-laguntzak (Nafarroako Gobernuarenak edo Europar Batasunarenak izan) hartzeko beharrezkoak diren ekintza oro burutuko ditu.

5.- Batzar Nagusiak hitzarmenak hitzartzen ahalko ditu bertze interesdun batzuekin herri-lurretan oihan landatzeak egiteko eta mantentzeko, eta xede horretarako onesten diren xedapenek arautuko dituzte eta ez dira lotuta egonen Baztango auzoko izateari.

## **62. Artikulua.**

1,- Auzokoek berez sortzen diren zuhaitzak aprobetxatu nahi badituzte, piketeak egiteko edo bertzelako erabileretarako, jasotako aprobetxamenduetatik at, Batzar Nagusiari eskatu beharko diote.

2.-Piketeak egitea eskatzen dutenean, egindako piketeen % 40 Batzar Nagusiari eman beharko dizkiete, eta Batzar Nagusiak errandako tokira eraman beharko ditu.

## V. KAPITULUA

### IRAZELAIAK

#### 63. Artikulua.

Batzar Nagusiak emanen du Haraneko herri-lurretako iratzeen aprobetxamendua, aurrez eskaturik. Irazelaiak eskatzen dituztenek ez dute bete beharko 38.1 artikulua a) idatz-zatia.

#### 64. Artikulua.

Interesatutako auzokoak idatziz egingen dio eskaera Batzar Nagusiari. Mendi arduradunek eta mendizainek eskaeraren gaineko txostena eginda, Batzar Nagusiaren eskumena izanen da kontzesioa ematea.

Baimendutako irazelaiak eskatzaileek memoria teknikoa egin eta aurkeztu beharko dute hilabeteko epean baimena jakinarazten zaienetik aitzina, eta halaber, irazelaia kokatu eta zedarritu (ETRS-89 HUSO 30, UTM koordenatuak) eta azalera adieraziko dute.

#### 65. Artikulua.

Batzar Nagusiak galarazten ahalko du iratzeak moztea herri-lurretan, bertan oihan landareak, hala nola gaztainondoak, lizarrak, gereziendoak eta, bereziki, bertako haritzak, badira, irazelaian dauden oihan landareen dentsitatea gutxienez ere 374 metro karratuko gizalur bakoitzeko 30 landarekoa delarik. Aitzinetik, aprobetxatzen ari den auzokoari adituko zaio eta iratze aprobetxamendurako bertze lur bat eman ere.

#### 66. Artikulua.

Hamar urtean behin berrituko dira onuradunaren eskaera eta auzokoek disfrutaturiko irazelaiak aprobetxamenduaren Batzar Nagusiaren berrespena.

#### 67. Artikulua.

Honakoak izanen dira kontzesioa iraungitzeko zioak:

- 1.- Irazelaia larriki andeatzea.
- 2.- Ondoz ondoko bi urtez irazelaiaren erabilera frogagarria ez egitea.

## VI. KAPITULUA

### LANTZEAK

#### **68. Artikulua.**

Batzar Nagusiak Komunitatearen lurrak -baratzeak, adibidez- lantzeko eremuak eta erabilerak antolatu eta planifikatuko ditu. Antolaketa eta planifikazio horiek lotesleak izanen dira aprobetxamendu kontzesio orotarako eta, gehienez, 10 hektareakoa izanen da kontzesiodun bakoitzeko.

#### **69. Artikulua.**

Interesatutako auzokoak idatziz egingen dio eskaera Batzar Nagusiari. Mendi arduradunek eta mendizainek eskaeraren gaineko txostena eginda, Batzar Nagusiaren eskumena izanen da kontzesioa ematea.

Baimendutako aprobetxamenduaren eskatzaileek memoria teknikoa egin eta aurkeztu beharko dute hilabeteko epean baimena jakinarazten zaienetik aitzina, eta halaber, lantzea non den kokatu eta zedarritu (ETRS-89 HUSO 30, UTM koordenatuak) eta azalera aipatuko dute.

#### **70. Artikulua.**

Luberritzeko ematen diren herri-lurrak kontzesioa eman eta bi urtera gehienez ere landu beharko dira, ezinbertzeko kasuetan salbu. Bertzenaz kontzesioa deuseztatuko da eta adjudikaziodunak galdu egingen du lantzeko eskubidea izateko ordaindu duen diru kopurua.

#### **71. Artikulua.**

Honakoak izanen dira kontzesioa iraungitzeko zioak:

- 1.- 38. artikulua ezarritakoa ez betetzea.
- 2.-Lantze ekoizpena larriki andeatzea.
- 3.- Errentan eman edo lagapena egitea.
- 4.- Ondo ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea, salbu eta Batzar Nagusiak huraxe ez dela iraungi jotzen badu, aski arrazoi dagoelakoz.

#### **Artikulua 72.**

Hamar urtean behin berrituko dira onuradunaren eskaera eta auzokoek disfrutaturiko lantzeen aprobetxamenduaren Batzar Nagusiaren berrespena.

### **I.KAPITULUA**

## ETXEKO EGURRA

### 73. Artikulua.

- 1.- Batzar Nagusiak aprobetxamenduaren kontzesioa erabakitzen ahalko du auzokoek etxeke egurraz dituzten beharrei erantzuteko
- 2.-Egur aprobetxamendu baterako eskubidea izanen da familia unitate bakoitzeko eta ohiko etxebizitza bakoitzeko.
- 3.- Kontzesio erabakiak Nafarroako Gobernuari jakinaraziko zaizkio baimentze ondorioetarako.

### 74. Artikulua.

- 1.- Auzokoen aprobetxamendurako loteak seinalatzean, mendien alorrean eskumena duen administrazioaren irizpideei jarraikiko zaie.
- 2.- Zuhaitzak oinez oin markatuko dira mendi administrazioak ezarritako irizpide teknikoaren arabera.

### 75. Artikulua.

Egur-sailetarako eta egurra ateratzeko, gehieneko epea urtebetekoa izanen da horiek markatuzetik kontaktzen hasita. Baztango mendizainek egur-sailen markatze-data txosten batean jaso beharko dute. Aipatu epea akiturik, moztu ez diren egur-sailak edo moztu bai baina atera ez direnak erabiltzeko kontzesioa iraungiko da eta Batzar Nagusiaren esku geldituko dira. Ez da loteen ordain saria itzuliko, ezinbertzeko kasuetan izan ezik.

### 76. Artikulua.

Onuradunek soberakinak bildu eta pilatu beharko dituzte, behin egurra eraman eta gero, soberakin horiek ezin izanen direlarik bide, mendi bide edo pasatu ahal izateko oztopo izanen diren lekuetan metatu, oihana garbi utzita.

### 77. Artikulua.

- 1.- Kontu handiz behatuko da adjudikatutako egur loteak kontzesioaren helburu eta xedeetan erabiltzen diren. Galarazita dago eskuz aldatzea edo bertzerentzea.
- 2.-Mendizainak uneoro joaten ahalko dira egur loteen onuradunengana egurra non kokaturik dagoen eskatzeko. Informazio hori ematen ez bazaie, Batzar Nagusiari jakinaraziko zaio.

#### **78. Artikulua.**

1.- Haizeak botatako zuhaitzak edo "zain irauliak" gainerako egur aprobetxamenduen gisara ulertuko dira, eta beraz, partikular interesdunek ezin izanen dituzte saldu edo bildu.

2.-Udaleko Tokiko Gobernuko Batzarrak zain irauliak adjudikatzen ahalko ditu, mendizainek aldeko txostena eman eta balorazio ekonomikoa egin ondoren.

3.-Zain iraulien baldintzak Batzar Nagusiaren erabaki bidez ezarriko dira.

### **VIII. KAPITULUA**

#### **SAROIAK, BORDAK ETA NEKAZARITZA-ABELTZAINZAKO BERTZE ERAIKINAK HERRI-LURRETAN**

#### **79. Artikulua.**

Saroiak azientza eguraldi txarretik babesteko lur eremuak dira. Bai egungo saroietan bai gero ezartzen direnetan, azientzari babesa eta itzala emateko behar adina zuhaitz landatuko dira

#### **80. Artikulua.**

Herri-lurretan azientza kontzeko bordak edo nekazaritza nahiz abeltzaintzarako baliatzeko abeltzain, ukulu, biltegiak edo gisako bertzelako eraikinak eraiki edo zaharberritu nahi dituzten auzokoek honako baldintzak bete beharko dituzte: 38. artikulua ezarritako baldintzak bete, abeltzain-txartela eduki, azientza haranean erregistratua izan eta abere osasuneko betebeharrak betetzea.

#### **81. Artikulua.**

Herri-lurretan dauden azientza kontzeko erautsitako borden jabeek bi urteko epea izanen dute eraikina berreraikitzeke. Bertzela, bertze auzoko batek izanen du eremu horretan bertan edo hurbil borda bat eraikitzeke baimena eskatzeko ahalmena.

Borda epe horretan berreraikitzen ez badu, eta bertze pertsona batek berriazko interesa badu hura berreraikitzeke, bordaren jabeak gehienez 6 hilabeteko epea izanen du materialak kentzeko. Bertzenaz, udal zerbitzuek material erautsia balioetsiko dute, eta adjudikaziodun berriak balioespen hori ordaindu beharko du aprobetxamendua adjudikatu baino lehen.

#### **82. Artikulua.**

Herri-lur eraikiezinean nekazaritza-azpiegitura bati hasiera eman nahi dioten auzokoek unean-unean indarra duen hirigintza araudia eta udal nahi foru araudia errespetatu beharko dituzte. Interesdunek memoria bat aurkeztu beharko dute udal arkitektura zerbitzuak txostena egin dezan hirigintza araudiarekin bat heldu ote den ikusteko. Hala ere, Batzar Nagusiak izanen du proiektua garatzeko herri-lurren okupazioa aldi baterako baimentzeko edo ez baimentzeko ahalmena.

### **83. Artikulua.**

Herri-lurretan egindako eraikina ezin izanen da erabili eraiki zenean eman zitzaiona ez den bertze edozein erabileratarako, aitzinetik Batzar Nagusiaren baimena lortu gabe eta indarra duen araudia betez.

### **84. Artikulua .**

Batzar Nagusiak hamar urtean behin berraztertuko ditu emandako kontzesioak.

### **85. Artikulua.**

Hona hemen kontzesioa iraungitzeko zioak:

- 1.- 38. artikulua ezarritako baldintzak ez betetzea
- 2.- Emakidadunak abeltzain-txarteldun abeltzainaren izaera galtzea.
- 3.- Osasun beharkizunak ez betetzea.
- 4.- Ondo ondoko bi urtez kanona ez ordaintzea, salbu eta Batzar Nagusiak huraxe ez dela iraungi jotzen badu, aski arrazoi dagoelako.
- 5.- Errentan eman edo lagapena egitea.
- 6.- Eraikina, eraiki zenean eman zitzaiona ez den bertze edozein erabileretarako baliatzea.

### **86. Artikulua.**

Batzar Nagusiak izanen du, mendizainen bidez, borda, korta eta bertzelako eraikinetan egiten diren jarduerak zaintzeko ahalmena, egoera egokian mantentzen direla eta hondakinak biltzen direla kontrolatzeko, azindarien parasitoak hiltzean edo gisako jardueretan sortzen ahal den kutsadura saihesteko. Nekazaritza-eraikinen arduradunen betebeharra izanen da hondakinak jasotzea eta sarbiderako bideak mantentzea.

## **IX. KAPITULUA**

### **BERTZELAKO ERAIKINAK HERRI-LURRETAN**

#### **87. Artikulua.**

Batzar Nagusiak obra, instalazio eta zerbitzuetarako herri-lurren aldi baterako okupazioa erabakitzen ahalko du, dagokion kanona ordainduz, lanpostuak sortzen dituzten industria-instalazioen eraikitzearen kasuan eta Baztan haranarentzat beharrezkoak diren kirol, kultur, osasun edo aisialdi instalazioaren kasuan, bertzeak bertze, betiere aipatutako proiektuak jendartearentzat interesgarriak direnean eta indarra duen araudia betetzen duten bitartean. Eskatzailea ez da behartua egonen 38. artikulua betetzera, 1b idatz-zatia izan ezik.

## **X. KAPITULUA**

### **IHZIA ETA ONDDO ETA ZIZEN BILKETA**

#### **88. Artikulua.**

Ihizia Nafarroako Komunitatean dagoen foru legeen arabera arautuko da.

#### **89. Artikulua.**

Ehiza Antolatzeko Plangintza batek arautua behar duen barrutiaren adjudikaziodunarena izanen da ihiziak sortzen dituen kartutxo eta bertzelako hondakinak garbitzeko ardura. Mendizainek urtero egiten dute barrutian ikuskapen bat eta horretan oinarrituriko txosten bat idatziko dute Batzar Nagusiarentzat.

#### **90. Artikulua.**

Baztango herri mendietan onddo eta ziza mota aunitz sortzen dira. Zenbaitetan, produktu horien bilketak sobera jende ekarrarazten du mendietara, eta horrek natur ingurunearen andeatzea eragin dezake.

Batzar Nagusiaren irudiko, espezie horien mantentzea bermatu, natur ingurune ko kaltea galarazi eta mendia behar bezain garbi mantendu behar da; horrenbertzez, neurri egokiak hartuko dira horrela izateko, betiere indarrean dagoen araudiarekin bat.

## **XI. KAPITULUA**

### **KIROL, AISIA ETA JOSTETA JARDUERAK**

#### **91. Artikulua.**

Gaur egun, gero eta handiagoa da gizarteak naturarekin hartu emanetan sartzeko eskaera, bertan kirol, aisia eta josteta jarduerak egiteko. Jarduera horiek natur baliabideen aprobetxamendu jasangarriak eskatzen dituen errespetu eta kontrolik gabe egiteak eragin kaltegarriak ekartzen ahal ditu; zenbaitetan, konponezinak. Eragin hori ahalik eta gehien murrizteko, Batzar Nagusiak aztertuko du zer neurri komeni den hartzea.

## **XII. KAPITULUA**

### **URA ETA UREZTAKETAK**

#### **92. Artikulua.**

Herri-lurra ura bildu eta eramateko okupatzeak baimena beharko du. Horretarako, auzokoak egin beharreko lanen eta aprobetxamenduaren dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko du honako hauek bilduta: Memoria eta lurren kokapen planoak eta okupazio planoak. Eskatzailea ez da behartua egonen 38. artikulua betetzera, 38.1b) eta 38.3 idatz-zatiak izan ezik.

1.- Eskatzaileak egoera onean paratu beharko du obrak edo ondorengo konponketek ukituriko edozein egitura (bideak, erretenak...).

2.- Udalak herri-lur horietan hodiak ukitzen dituen edozein lan egiten badu, eskatzaileak beharrezkoak diren aldaketak egin beharko ditu. Gastuak bere bizkar izanen dira eta ez du kalte-ordainik hartzeko eskubiderik izanen.

3.- Baimenaren epe barnean Udalak, modu justifikatuan, hodiak hornidura zehatz baterako erabiltzeko eskatzen badu, eskatzailea huraxe uztera beharturik egonen da.

4.- Hodia behar bezala lurperaturik egonen da.

### **93. Artikulua.**

Herri-lurraren okupazioa aprobetxamendu berezi gisa baimentzen da. Baimena mantenduko da emateko orduan zeuden baldintzak diren bitartean, eta aurreko puntuan aipatzen den dokumentazio teknikoan deskribatutako aprobetxamenduetarako bakarrik ematen da. Hamabortz urtez iraunen du eta bertze bortz urtez luzatzen ahalko da, eta gisa horretan, hurrenez hurren, jarduerak iraun bitartean. Instalazio horietan jarduna eteten delarik, lurra herri-erabilerara, mugarik gabe, itzuliko dira eta, hortaz, eskatzaileak edo haren ondorengoak instalazio guztiak kendu beharko ditu bere kargura eta bere bizkar. Hori ez badu egiten, Baztango Batzar Nagusiarena izatera pasatuko da.

### **94. Artikulua.**

Baimen honek ez du deus ikustekorik sustatzaileak erakunde eskudunei eskatu behar dien edozein motatako bertzerekin. Halaber, instalazioaren erantzukizuna eskatzailearena soilik izanen da.

## **XIII. KAPITULUA**

### **ERAUZTE JARDUERAK**

#### **95. artikulua**

Nafarroako Gobernuak eta Baztan Haraneko Udalak egindako txostenetan oinarriturik, pertsona fisiko edo juridiko batek erauzte jardueraren bat instalatu edo handitzeko proiektua aurkezten duenean, Batzar Nagusiak dagokion lurra okupatzeko baimena eman edo ukatuko du.

## **XIV. KAPITULUA**

### **OIHAN SUTEAK, SASIAK, BELARRAK ETA UZTONDOAK ERRETZEA**

#### **96. Artikulua.**

Arras debekaturik dago zuhaitzak dauden herri-lurretan sua piztea, edozein motatakoa delarik ere.

#### **97. Artikulua.**

Auzoko batek, iratzea mozten duen eremua garbitzeko edo bertze gisako arrazoi justifikagarri batengatik, zuhaitzik gabeko herri-lur zati bat erretzeko beharra baldin badu, arrazoiak eta erreketak egiten duen lekua zein diren azaldu beharko ditu, eta kontrolpeko erreketak egiteko baimena eskatzeko indarra duen mendi-araudiak ezarritakoa bete.

### **XV. KAPITULUA**

#### **FAZERIAK**

#### **98. Artikulua.**

Arras debekaturik dago bertze jurisdikzioetako azientak Baztango herri-lurretan alhatzea, salbu eta elkarrekiko larre hitzarmenak dituztenetan. Hitzarmena dagoen kasuetan, alhatzea arautuko da bakoitzak sinatu duen kontratuak ezarritakoaren arabera.

Bertze jurisdikzioetako abeltzainek fazerietan haien eskubideak baliatu aitzin, legezko osasun-betekizunak bete beharko dituzte.

#### **99. Artikulua.**

Baztan Haranak fazeria-hitzarmenak sinatzen ahal ditu inguruko herriekin.

### **I. TITULUA**

#### **II. HERRI-LURRETAKO LURZATIEN TRUKATZEA**

#### **100. Artikulua.**

Baztar Nagusiak herri-lurrak ez murrizteko irizpidea defendatu eta herri-lurrak ez sakabanatzea zainduko du.

#### **101. Artikulua.**

Lurzati txikien desafekziorako prozedura.

1.- Lurzati txikiak trukatu ahal izateko desafekzioa lortzeko beharrezkoa izanen da Nafarroako Gobernuak lurzati horiek onura publikokotzat edo gizarte onurakotzat aitortzea, Batzar Nagusiak justifikatu ondoren bilatutako xedea ezin dela lortu lagapen edo zergen bidez, nahiz eta bi horiek izan lehentasunezko bideak. Lege horrek aipatzen dituen lurzatienei neurriak araudiaren bidez ezarriko dira, haien ezaugarri eta herri-ondarearen hedaduraren arabera.

2.- Jarraituko den prozedura uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak ezarritakoa izanen da, edo haren ordezkotako araudiak ezarritakoa.

### **IV. TITULUA**

#### **ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

#### **102. Artikulua.**

Artikulu hauetan ageri diren arau-hausteak egiten dituztenek erantzukizun administratiboa izanen dute.

#### **103. Artikulua.**

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izaten ahal dira:

1.- Arau-hauste arinak izanen dira:

a.- Batzar Nagusiaren baimenik gabe aldatzea aprobetxamendurako emandako erabilera.

b.- Haraneko herri mendietan okupazioa egitea Batzar Nagusiaren baimenik izan gabe.

c.- Herri mendietako zuhaitzak edo egurra moztu, erauzi, kaltetu, atera edo haietaz jabetzea beharrezko titulu administratiborik izan gabe.

d.- Herri mendietan edo herri-lurretan azienda alhatzera eramatea, debekaturik badago edo Batzar Nagusiak ezarritako arauak bete gabe.

e.- Zain irauliak saltzea.

f.- Loteak saltzea.

g.- Ordenantza honetan ezarritakoa hausten duen bertze edozein gertakari edo ekintza.

h.- Arau-hauste arinak berriz egitea. Berrerortzea gertatuko da, baldin eta arau-haustea egiteko tenorean 3 urte iragan ez badira zehapena ebazpen irmoren bidez ezarri zenetik.

2.- Arau-hauste larriak izanen dira:

a.-Mendian edo herri-lurretan edozein erreketak egitea baimenik gabe.

b.-Herri-lurretan material solidoak edo likidoak baimenik gabe botatzea.

c.- Arau-hauste arinak berriz egitea eta herri-lurren aldaketa dakartzaten arau-haustea egitea.

3.- Arau-hauste oso larriak izanen dira:

a.- Mendian edo herri-lurretan edozein erreketak egitea baimenik gabe berez oihanberritu diren edo landatu diren basoetatik hurbil.

b.- Herri-lurretan material solido edo likido arriskutsuak baimenik gabe botatzea.

c.- Arau-hauste larriak arinak berriz egitea. Berrerortzea gertatuko da, baldin eta arau-haustea egiteko tenorean 3 urte iragan ez badira zehapena ebazpen irmoren bidez ezarri zenetik.

#### **104. Artikulua.**

Hauek dira arau-haustea egiteagatik izanen diren zehapenak:

1.- Arau-hauste arinak 600 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira. Lote bat edo zain irauliak saltzen dituztenari adjudikatu zaion lotearen balio guztiaren halako bi egiten duen isuna ezarriko zaio eta bortsu urtez ez zaio loterik batere emanen.

2.- Arau-hauste larriak 600etik 6.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira.

3.- Arau-hauste oso larriak 6001etik 60.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira eta 10 urteko inhabilitazioa ezarriko zaio herri-lurren aprobetxamenduen titularra izateko.

4.- Isunen zenbatekoa mailakatzeko, kontuan hartuko dira arau-haustearen asmoa edo arduragabekeria, eraginiko kalte-galaren munta eta aldaturiko errealitate fisikoa konpontzeko posibilitate handiagoa edo txikiagoa. Zuhaitzak legez kontra moztzen badira eta azienda legez kontra Erdiz, Belate eta Lizartzuko larreetan badabilta, 5. eta 6. eranskinetan ezarritakoari jarraituko zaio arau-hausteen zenbatekoak mailakatze aldera.

5.- Isuna ez da sekula arau-haustea egitetik ateratako mozkin baina txikiagoa izanen eta arau-hausleak erdietsitako mozkinaren bikoitzaren parekide izaten ahalko da.

6.- Arau-hauste arinak sei hileko epean, larriak hemezortzi hileko epean eta oso larriak 24 hileko epean baliogabetuko dira.

7.- Batza Nagusiko buruak izanen du zehapen arinak eta larriak paratzeko eskumena, eta Batzar Nagusiak oso larriak paratzekoa.

8.- Zehapenak unean-unean indarra duen prozedura administratiboari jarraikiz ezarriko dira.

9.- Edozein arau-hausteren arduraduna, ezarritako isuna ordaintzeaz gainera, sorrarazitako kalte-galerengatik kalte-ordaina ordaintzera ere izanen da behartua. Errealitate fisikoa konpontzeak edo arau-haustearen aurreko egoerara leheneratzeak duen kostuan baloratuko dira gutxienez kalte-galerak.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **1.Xedapen iragankorra.**

Ordenantza hau onesteko tenorean, 15 urte bete dituzten landaketen emakidunek urtebeteko epean bildu beharko dute eskindegia. Lanak epe horretan egiten ez badituzte, eta behin hori egiaztaturik mendizainen txostenaren bidez, Batzar Nagusiak ofizioz baja emanen dio aprobetxamenduari eta eskindegia bilduko du.

1.Eranskina: APROBETXAMENDU GUZTIEN KONPENTSAZIO TAULA.

2. Eranskina: APROBETXAMENDUAK EKENTZEKO TAULA.

3. Eranskina: LUBERRIAK PUNTUATZEKO TAULA.

4. Eranskina: ERLEAK ESKABIDE TAULA.

5. Eranskina: ZUHAITZEN BAREMO TAULA.

6. Eranskina: AZIENDA BAZKALEKUETAN BAREMO TAULA.